

BALIO PROPOSAMENA

GuZum banaketa enpresa bat da, bertan, Zumaiako dendetako produktuen banaketa zerbitzuaz arduratzen da, online denda baten bidez kudeatuta. Datuen arabera, interneteko salmenten kopuruak joera gorakor nabarmena izan du azken urteotan eta Zumaiako komertzioak berriz, ez du lekurik merkatu horretan. Horretaz gain, pandemiaren egoera dela eta online erosketak sektore batzuetan ezinbesteko bihurtu eta ikaragarri igo dira, %50a, alegia, eta beraz, Zumaiako herriari, herritarrei eta dendariei beharrezko ekarpen bat egiteko pentsatuta dago gure proiektua. Erreferentzia gune bat izango da gurea online erosi bitartean herrikideei ekarpena egin nahi dienez; beti ere bezeroekiko gertutasuna bermatuko duen tokia.

GuZum proiektuak, bai merkatari zein kontsumitzaileei mesede egiteko helburua dauka. Alde batetik, pandemia egoera honetan, dendari askok beren diru-sarrerak, eta beraz irabaziak asko jaitsi direla nabaritu dute; mugikortasuna mugatuta izateaz gain jende asko eta askok beldurra baitio birusari eta ez baitute dendetara joan nahi izaten. Hauetariko askorentzat oinarri-oinarrizkoak ez diren produktuak erosteko bide nagusia eta ia bakarra internet bidezkoa bilakatu da bolada batean. *GuZumen* laguntzaz, Zumaiako merkatariak eskaintzen dituzten produktuak internet bidez erosteko aukera izango dute zumaiarrek, inongo arriskurik izan gabe, eta gainera, saltoki guztiak bertakoak direnez, berehala iritsiko da produktua etxera.

Bestalde, dendarien irabaziak nabarmen igoko dira gure proiektua martxan jartzen dugun unean; euren produktak orain arte bezala denda fisikoan saltzeaz gain, internet bidez ere saltzeko aukera horrek, merkatu berrietara zabaltzeko eta ezagutzera emateko aukera emango baitie eta hala, etorkizun batean gainontzeko herrietara zabaltzeko aukera ere bai. Hortaz, kokapen eta ordutegi jakin batean lan egiteak suposatzen dituen mugak apurtuko genituzke tokian-tokiko negozioen mesedetan; zumaiako merkatarien ongizateak herria aberastuko duelakoan. Online plataformen arrakasta kontuan izanik, eta horiek eredu gisa hartuz, Zumaiako herritarren bizitzara moldatuko gara prezio lehiakorrek 24 orduko zerbitzu azkar bat eskainiz, edonondik eskuratu daitekena.

Mundu mailan ezaguna eta arrakastatsua den Amazon banaketa enpresa estatubatuarraren ezaugarri eta atal asko bildu eta antzera funtzionatuko du *GuZumek* baina honek ez bezala, guk Zumaiako dendetako produktuak bakarrik salduko ditugu, momentu honetan hauek behar baitute laguntza gehien.

Urola-Kosta eta inguruko eskualdeetan ez da oraindik horrelako ekimenik, eta beraz etorkizunean beste eremu batzuetan hedatu litekeen eredua bilakatu liteke, mundu mailako berrikuntzak tokian-tokiko aberastasunaren mesedetara jarritz.